

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UPV/EHU GRADUAZIO EKITALDIEN GIDA

www.ehu.eus

2006ko maiatzaren 10ean (2006ko uztailaren 3ko EHAA), UPV/EHUren Gobernu Kontseiluak Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatearen Ekitaldi Akademiko Nagusi, Ohore eta Protokoloetarako Arautegia onartu zuen.

Arautegi honen arabera, Unibertsitate osoaren akademi ekitaldi nagusitzat jotzen dira ikasturteari hasiera ematekoa, unibertsitate doktore berriak izendatzeko ekitaldi ofizala, *Honoris Causa* doktoreak izendatzekoa eta UPV/EHUren urrezko domina jartzekoa. Horiez gain, unibertsitatearen ekitaldi akademiko solemnetzat joko dira gobernu taldeak erabakitakoak, bai puntualak direnean, edo gobernu kontseiluak erabakitakoak, jarraikotasunaren asmoaz ezartzen direnean.

Era berean, 2016ko ekainaren 2an Unibertsitateko Gobernu Kontseiluak 2016-2019 aldirako UPV/EHUko Komunikazio Plana onartu zuen. Bertan, 4.2. atalean Kanpo Komunikazio Ekintzen garapenean, UPV/EHUK maiztasun batez egindako ekitaldiak antolatzeke ildoak eta irizpideaj jasoko dituen protokolo bat egitea aurreikusten da.

AURKIBIDEA

PROTOKOLOA

EGUTEGIA

ANTOLAKETA

AGINDARIAK

JANTZI AKADEMIKOAK

UPV/EHUKO KOROA

EGITARAUA

DIPLOMEN BANAKETA

GRADUATUAK

BANDEREN ERABILERA

EUSKARAREN ERABILERA

ERAKUNDE IRUDIA

EMAKUME ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA

SEGURTASUNA



PROTOKOLOA

Unibertsitatearen Ekitaldi Akademiko Nagusi, Ohore eta Protokoloetarako Arautegiaren 2.1. artikuluan Unibertsitate gradua emateko ekitaldiak aurreikusten dira.

21.1 artikulua araber, Ikastegiekin unibertsitate gradua emateko ekitaldiak antola ditzakete, unibertsitate ekitaldi solemnetzat joko direnak. Dena dela, 21.6 artikuluan jasotzen denez, UPV/EHUren unibertsitate graduaziorako ekitaldiek protokolo amankomuna izango dute, idazkaritza nagusiak ezarritakoa, nahiz eta ikastegiekin zenbait ekarpen egin dezaketen.

Aipaturikoan oinarrituz eta gidalerro amankomunak garatzeko asmoz, UPV/EHUko Graduazio Ekitaldien Gida hau garatu da.

EGUTEGIA

Gida honekin batera helarazitako inprimakia Idazkaritza Nagusira bidaliko da zehazturiko epean.

Horretan oinarrituz, Idazkaritza Nagusiak ikasturtean egingo diren graduazio ekitaldien egutegia prestatuko du. Datekin arazorik egonez gero, eskaeren helduera-ordena errespetatuko da.

Edonola ere, unibertsitate osoaren ekitaldi akademiko hauek lehenetasuna izango dute:

- Ikasturteari hasiera emateko ekitaldia.
- *Honoris Causa* dokotreak izendatzeko ekitaldia.
- Unibertsitatearen urrezko domina emateko ekitaldia.
- Doktore berriak izendatzeko eta doktoregoko sari bereziak emateko ekitaldia.

Era berean, errekotrea gonbidatzekotan, Errektorearen Kabineteari jakinaraziko zaio data.

ANTOLAKETA

Irizpide amankomunak errespetatu beharko badira ere, graduazio ekitaldien antolaketa Ikastegi bakoitzari dagokio. Hori dela eta, Ikastegi bakoitzak persona talde bat izendatu beharko du antolaketa arduratu eta ekitaldiaren egunean egon daiten.

AGINDARIAK

Agintariak gonbidatzekotan, Euskal Herriko Unibertsitatearen irudia zein gainontzeko erakundeekiko harremana zaintzeko asmoz, hurrengo irizpideak jarraituko dira:

- Mahai nagusiaren konposaketa eta parte-hartze ordena Errektorearen Kabinetearekin adostuko dira.
- Agintariei harrera egingo zaie. Horretarako, graduazio ekitaldia antolatzen duen Ikastegiko arduraduna, gutxienez, ekitaldia hasi baino 30 minutu lehenago aretora hurbilduko da.
- UPV/EHUko segurtasun arduradunari jakinaraziko zaio graduazio ekitaldira bertaratzea baieztatu duten agintarien zerrenda.

JANTZI AKADEMIKOAK

Jantzi akademikoak erabiltzekotan, Idazkaritza Nagusiarekin hurrengoak koordinatuko dira:

- Doktoeren jantzi akademikoa erabiliko duten pertsonen zerrenda jakintza arloka sailkatuta helaraziko da, altuera eta pisua zehaztuz.
- Ikastegi antolatzailea arduratuko da beharrezkoak diren jantzi akademikoen kudeaketaz, Idazkaritza Nagusiaren laguntzaz. Horretarako, Leioan aurkitzen den UPV/EHUko jantzi akademikoen biltegira joan beharko dute Idazkaritza Nagusiarekin aurretiaz adostutako egun eta orduan.
- Ikastegiaren ardura izango da jantzi akademikoak ekitaldia egongo den lekuraino eramateko zerbiltua, bai eta jantziak itzultzekoa eta dagokien tokian berriro ere jartzea.
- Traje akademikoak hartu diren egoera berebean itzultzea Ikastegiaren ardura izango.
- Ekitaldiaren egunerako, traje akademikoak janzten lagunduko dituzten eta komitiba antolatuko duten pertsonak izendatu beharko dira.
- Komitiba antolaketaren proposamena aurretiaz bidaliko da.

UPV/EHUko KOROAK

UPV/EHUko Koroaren parte-hartzea eskatzekotan, beharrezko aurretiaz egingo da, 3 hilabete delarik denbora egokia. Eskaera, Garapen zientifikoan eta Transferentziaren arloko errektoreordetzara zuzenduko da e-mailez.

Ekitaldiaren egunean, Koroarentzat ura gordeko da eta areto bat aurreikusiko da bertan entsegatu dezaten.

UPV/EHUko Koroak ekitaldira joatea posible ez balu, Gaudeamus Igitur-aren grabazioa Ikastegiaren esku jarriko da.

EGITARAUA

Protokolo arauak jarraituz, oro har, programen egitura hurrengoak izango da:

- Ikastegiko arduradunen ongi etorri hitzak
- Ikasleen ordezkarien, amabitxi/aitabitxiaren edo gonbidatuaren hitzak
- Agintarien hitzak
- Discurso de las autoridades
- Gaudeamus Igitur-a

DIPLOMEN BANAKETA

Diplomen banaketa mahaikide guztien artean egingo da. Hau da, graduatuak taldeka igoko dira eszenatokira, talde bakoitzeko graduatu kopuruak mahaikide kopuruarekin bat egingo duelarik.



GRADUATUAK

Ekitaldiaren egunean, graduatuak aurretia nahikoaz konbokatuko dira ekitaldiaren funtzionamendua azaltzeko asmoz. Behin azalpenekin amaituta, eta ekitaldia hasi aurretik, EHUalumni-tik helarazitako bideoa jartzeko aprobetxatuko da, hala nahi izanez gero.

BANDEREN ERABILERA

Bandera akademikoak erabiltzekotan, unibertsitate protokolo arauak ezarritakoak erresptatu beharko dira. Horiei jarraiki, horrela jarriko dira banderak:

1. Horia
2. Laranja
3. Urdin iluna
4. Tabako kolorea
5. Zuria
6. Gorria
7. Perla grisa
8. Urdin argia
9. Malba
10. Ilargi grisa
11. Izokin-kolorea
12. Fuksia
13. Morea
14. Granatea
15. Berde argia
16. Menta berdea





EUSKARAREN ERABILERA

2012ko uztailean 19ko Gobernu Kontseiluan onartutako Euskararen Plan Gidariaren luzapenean, bi hizkuntza ofizialen erabilera arautzeko jarraibide eta irizpide zehatzak eskaintzen dira. Jarraibide eta irizpide hauek UPV/EHUren harreman ofizial eta protokolozkoak dituzte helburu.

Planari jarraituz, UPV/EHUK sortutako edozein dokumentuk, komunikaziok edo ekementuk euskararen presentzia bermatu beharko du, eta hizkuntza bat baino gehiago baditu, euskarazkoari lehentasuna emango zaio.

Ahozkoan, agurrak (hasierakoa eta amaierakoa) gutxienez, euskaraz izango dira. Hitzaldia berriz, erabiltzaileak aukeratzen duen hizkuntzan garatuko da. Dena dela, euskararen presentzia bermatu egin beharko da. Hona hemen bide batzuk:

- Aldibereko itzulpena erabiltzea.
- Idatzizko euskarrietan informazioa bi hizkuntzatan banatzea.
- Ahozko informazioa hizkuntza batetan ematea eta erakusten den aurkezpena (pantailan, esaterako) beste hizkuntzan eskaintzea.
- Bideoe kasuan, azpigituluak lagungarriak suerta daitezke.

Informazio gehiago »

ERAKUNDE IRUDIA

Dokumentuak zein testuak diseinatzeko, Marka Atarian jasotako jarraibideak hartuko dira aintzat. Atarian, diplomak, egitarauak, gonbidapenak eta beste adierazpen grafiko sortzeko plantilak aurki daitezke.

Informazio gehiago »

EMAKUME ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Planari jarraituz, Euskara eta Irudiak era ez-sexistan erabiltzeko Gida errespetatuko da, UPV/EHUren irudia unibertsitateak emakume eta gizonen arteko berdintasunarekiko berenganatutako konpromisoaren isla izan daiten.

Hori dela eta, berdintasun-hizkeraren erabilera derrigorrezkoa da, UPV/EHUren adierazpenetan hizkuntzaren erabilera diskriminatzailea errakuntza larritzat joko delarik. Beraz, adierazpen guztietan funtsezkoa izango da bi sexutakoak kontutan hartzea.

Era berean, posiblea den neurrian, hizlarien eta mahaikideen artean genero-parekidetasuna mantendu beharko da.

Informazio gehiago »





SEGURTASUNA

UPV/EHUK antolatzen duen edozein ekintzatarako, ezinbestekoa da Autobabeserako Plana ezagutzea eta plan hori ezartzea. Horretarako, larrialdietarako zuzendaria, kontrol zentroa, lehen esku hartzerako taldea, ebakuazio arduraduna eta alarma arduradunak finkatu beharko dira. Gainera:

- Ezin izango da, inolaz ere, Jarduketa Planean zehaztutako gunearen edukiera gainditu.
- Ekitaldia Ikastegiko ohiko orduteietatik kanpo eginez gero, behar den besteko egitura organiko eta funtzionala egon beharko da, larrialdirik egonez gero segurtasuna bermatuta egon dadin.
- Komenigarria da ekintza hasi aurretik jendeari azaltzea zeintzuk diren ebakuazio orokorrerako jarraibideak, gunetik irteteko bideak eta eraikineko elkargunea. Horretarako, informazioa idatziz eman daiteke, edo ekintza hasi aurretik minutu batzuk hartu azalpenetarako.
- Gogoan izan behar da desagaitasunen bat edo mugitzeko arazoak dituzten pertsonak egon daitezkeela.
- Larrialdirik egonez gero, Jarduketa Planaren arabera arduraren bat daukatenek lasaitasunez jokatu beharko dute eta modu ordenatuan.
- Ebakuazio orokorra egin behar izanez gero, ebakuazio eta alarmako arduradunek jendea bildu eta leku segurura eraman beharko dute.
- Kanpoko laguntzarik behar izanez gero, eskaria larrialdietako zuzendariak eginbeharko du, hau da: Ikastegiko dekanok edo zuzendariak edota eginkizun horiek eskuordetuta dituen pertsonak. Kontrol zentroak jarraibideen gida izango du, telefonoak nola erabili zehazten duena, bai larrialdietako zuzendariarena, bai kanpoko bitartekoena (SOS - DEIAK).

eman ta zabalzazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

